

FUNTSEZKO JARDUERAK

Atal honetan azalduko dugu zer motatako jarduerak egingo dugun, hau da, gure balorezko proposamena lortzeko eta bezeroei gure zerbitzua emateko egin behar ditugun jarduerak.

Gure zerbitzua hau da: pertsona batzuetatik hartuko dugu haien janariaren soberakinak eta ondoren, janari hori nahi dutenei eskainiko diegu. Hau betetzeko, hainbat jarduera behar ditugu:

- Alde batetik, gure funtsezko jarduerak ARAZOAK KONPONTZEA izango da. Gure helburua da janaria behar dutenei ematea. Beraz, ondorioztatu daiteke funtsezko jarduera arazoak konpontzea dela.
- Ekoizpenaren jarduera ez dugu egingo. Gure zerbitzua ez du behar ekoizpenik, biztanleen soberakinetik baliatuko gara.
- Teknologiaren jardueren aldetik, webgune bat eta sakeletarako app bat eratuko dugu. Webgunearen URLa hau da: <http://www.h-me.com> . App-aren izena hau da: **H-ME APP**.
 - Webgunean edo app-an sartzean, bi aukera egongo dira: *Help me* edo *Help someone*.
 - *Help me*: honekin janaria eskatuko egingo da. GPSarekin, pertsonaren kokapen geografikoa jasoko da eta langileei bidaliko zaie. Orduan, mezu bat aterako da esanez minutu batzuetan janaria helduko dela.
 - *Help someone*: aukera honekin, jendearen janariaren soberakinak jasotzeko balio du. Hemen ere, pertsonaren kokapen geografikoa hartuko da eta langile batek joango da janaria hartzeko. Gero, janari hori postuetara eramango da hozkailuan gordetzeko.
 - Goian ere aurkitu ahal izango da bezeroen arretarako botoi bat. Bertan gure enpresako telefonoa egongo da arazo bat badago.
 - Beste botoi bat egongo da hizkuntza aldatzeko. Aukerak hauek dira: euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez.